

ORDIZIA / Pello Añorgak umeei ipuinak kontatzeko teknikak irakatsiko ditu

Ordiziako Udal Liburutegiak umeei ipuinak kontatzen ikasteko zortzi orduko ikastaroa antolatu du azarorako. Pello Añorga ipuin kontalari ezagunak emango du ikastaroa, eta adierazi dute guraso eta hezitzaileei zuzendutakoa izango dela. Ikastaroa doan da, baina plaza mugatuak direnez, ahalik eta azkarren deitu behar da liburutegira (943 80 56 35).

Azaroaren 5ean (17:00-19:00), eta azaroaren 8an eta 15ean (17:00-20:00) izango dira saioak, eta hala nahi duenak, hurrei kontatzeko erabiltzen dituen ipuinak eraman ditzake ikastarora, "hurrekin hobeto komunikatzeko".

Bestalde, liburutegiak urrirako iragarritako ipuin kontaketa saioen barruan, bihar, hilak 18, egingo du Mertxe Aizpurua kontalariak bigarrena, 17:30ean.

Irakurketa tailerra, azaroan

Iaz hasitako bideari jarraituz, aurten ere euskarazko irakurketa tailerra egingo da. Aurreneko bilera azaroaren 8an egingo da, 19:00etan, eta bertan erabakiko dute zein izango den irakurriko duten lehen liburua. Irati Goikoetxeak gidatuko du tailerra.